

**Parte hartzea eta  
inplikazioa Euskal Herriko  
lan dinamizatzailean.  
Esperientziak, metodoak  
eta teknikak**

**Txerra Rodriguez, Emun  
@garaigoikoa**

## Sarrera

2013ko uztailaren 18an artikulua duen izenburuko bereko berbaldia eman nuen, Carballon, Galizian. Hango galiziera-teknikarien elkarteak deituta, ponentzia prestatu nuen. Artikulu hau ponentzia haren moldatze-lana da.

Ponentzia egin behar izateak proposatutako gaietan sakontzeko aukera eman zidan, nire soziolinguistikako ezagutzak eta eguneroko praktikak berriro aztertzeko aukera eman zidan. Eta ez da gutxi. Eguneroko jardunak lanean dabilkizuna aztertzeko astirik ez dizu ematen normalean. Eta, gainera, egiten ari zarena zalantzan jartzeko okasio gutxi egoten da.

Artikulu hau praktikatik jaiotzen da, baina teoriari muzin egin gabe. Egunerokoan hainbat normalizatzeko plan kudeatzen ditut, guztiak parte-hartzaileak (alde nabarmenak dauden arren planetik planera). Horien guztien esperientziatik asko dago, porrotetatik bezainbeste arrakastetatik. Egi(te)n dudan lan boluntariorik ere asko dauka.

Teoriatik edaten badu ere, praktikara bideratutako teoria izan gura du artikulu honek. Ez dut inola ere ulertzen soziolinguistika lurretik bi zentimetrora dauden teorikoen zientzia gisa. Interbentzio eta eraldatze zientzia gisa ulertzen dut soziolinguistika, behetik gorako zientzia gisa, Galiziako jardunaldi horietan parte hartu zuen Bernardo Penabadek dioen bezala, "soziolinguistika pedestrea" deituriko horren partaide sentitzen naiz ni ere.

Artikulan agertuko diren adibide teoriko zein praktikoak Euskal Herrian ohikoak dira. Erradiografia txiki bat izan nahi du, neure esperientziatik bahetua jakina. Ez da izango neutroa, ezta objektiboa ere, konprometitua eta guztiz subjektiboa izango da, zientziaren eta arrakastaren parametroetatik ahal den neurrian finkatua.

## Kontzeptu batzuk argitzen

Kontzeptuak argitzen hasi aurretik, onartu behar dut kontzeptu hauek guztiak irabiagailu batean sartu ditudala eta komeni izan zaidan moduan nahastu egin ditudala. Beraz, horrela hartu behar dira.

Joshua Fishman soziolinguistaren ustez, hiru dira hizkuntza komunitate batean aldaketak egiteko erabiltzen diren plangintzak: corpus plangintza, eskuratze plangintza eta osabetezko estatus plangintza. Hala ere, Mikel Zalbidetik Fishmanen beraren teorietan oinarrituta laugarren bat proposatzen du: berak asmatutako community fostering deiturikoa. Ikus ditzagun, labur bada ere, hauek guztiak:

- Corpus plangintza: hizkuntzari berari dago lotuta, alderdi linguistikoa lantzen du; emaitzarik esanguratsuenak dira gramatika eta hiztegi arauemaileak, terminologia-lanak, ortografia, puntuazio-arauak eta abar.

- Eskuratze plangintza: edo irakaskuntza plangintza. Ume zein helduei hizkuntza irakasteko plangintzari deitzen zaio horrela.


- Osabetezko estatus plangintza: hizkuntzaren alderdi soziala lantzen du; hemen sartzen dira, adibidez, estatus legala ezartzea, hizkuntzaren alde egindako kanpainak, hizkuntza eskubideak eta abar.

Teorian, hiru plangintza hauek izan dira gurean aplikatu direnak. Baina Fishmanen bidetik, Zalbidek laugarrena ere badakar: **community fostering** (edo komunitatearen suspertzea, edo biziberritzea). Komunitatea suspertuz, hizkuntza ahulari belaunez belauneko iraupen-bidea bermatu nahi zaio eta hiztun-elkarteari bere neurriko esparru berriak zabaldu. Gurean teorikoki asko landu ez bada ere, nire ustez Euskal Herriko biziberritze prozesuak asko dauka community fostering-etik. Beste herri batzuetan baino gehiago, nire ustez.

Beraz, lau plangintza mota orokor daude, nire ustez. Baina artikuluan honetan, batez ere, parte hartzeaz hitz egin behar dut, elkarlanaz, inplikazioaz. Parte hartzearen inguruko milioika teoria daude mundu mailan, ñabardurak zientoka, egileak ehunka. Dena ezin aztertu, jakina. Baina zerbaiti oratu behar, derrigorrez.

Parte hartzea zer da? Parte hartzea normalizazio plangintza batean, zer da? Edo zertan oinarritzen da? Nire ustez, plangintza batean jasotzaileek lau gauza egin ditzakete (edo lau parte hartzeko modu daude): informazioa jaso, kontsultatuak izan, eztabaidatu eta elkarrekin erabaki.

Lehenago aipatu ditudan lau plangintza horietan ere lau parte hartzeko modu egongo lirateke, beraz. Parte hartze moduak eta plangintzak elkarri lotuz, honako koadrante hau lortzen dugu:



Koadrante hau oso eztabaidagarria izan daiteke, sinplifikazioa baita. Eta sinplifikatzerakoan ñabardurak galdu egiten dira, nabarmen galdu ere. Hala ere, artikulua honen kariatara, balio duen sailkapena da hau. Baina tentu handiz hartu behar da hemendik kanpora estrapolatzeko.

Corpus plangintzan, gurean, informazioa eduki dugu euskaldunok, erabakiak hartu ostean eduki ere. Bestelakorik ez da izan: Euskaltzaindiak erabakiak hartu eta besteok bete. Adituek erabaki eta besteok men egin. Beste modu batera posible izango litzateke?

Eskuratze plangintzan ere informazioa baino ez dugu jaso euskaldunok. Parte hartzea badago zenbait eskolatan, zenbait euskaltegitan, baina erabaki potoloenak adituek hartzen dituzte. Eta horrela izan behar duen zalantza gutxi.

Osabetezko estatus plangintzan, Eusko Jaurlaritzak behintzat (eta azken planean) informazioa eman, kontsultarako bideak ireki eta eztabaidatzeko aukera eman du. Dena den, azken erabakia gobernuak berak hartu du, ekarpenak ekarpen.

Community fostering plangintzetan definizioz parte hartzaileek informatu, kontsultatu, eztabaidatu eta elkarrekin erabaki behar dute. Bestela, ez da benetako community fostering plangintza. Eta gurean horrela izan dira izan direnak.

Praktika-teorikoetara jo aurretik, beste ideia bat azpimarratu nahiko nuke. Aldaketak bultzatzeko oinarriko elementuak pertsonak gara. Pertsonak aldatu ahala, gauzak aldatuz joango dira. Horregatik, parte hartzeak era berean hezitzailea izan behar du. Parte hartu bai, baina pedagogiaz jokatu behar da. Irakurle gehienok aditu-arituak gara gure arloan, baina parte hartu(ko) duten asko ez eta, horregatik, dibulгатibo, oso dibulгатibo jokatu behar dugu. Haren hizkerara moldatu behar dugu geurea, haren esanetara ekarri gure hizkera mordoiloan erabiltzen ditugunak.

## **Elkarlana normalizazioa da**

Esan bezala, nire praktiketarik abiatu naiz artikulua idazteko. Eta esan bezala, community fostering horretan ikusten dut neure burua. Praktikan zein teorian, jakina. Zergatik? William Mackeyren arabera, "hizkuntza-legeak eraginkorrak dira sustatu nahi den hizkuntzari atxikita dauden beste alorretan ere nagusi denean: nagusitasun kulturala, ekonomikoa, demografikoa, eta abar" (Mackey, 1993). Eta ni berarekin bat nator. Beste alor horretan lortu behar da nagusitasuna, ezin da legeen zain egon.

Soziolinguistikara jaiotzen, Euskal Herrian elkarlanaz hitz egiten zen. Hitz egin bai, baina egin gutxitxo. Ni militantziaz nentorren eta soziolinguistikara hurreratu nintzen ikasteko asmoz, egunerokoan gertatzen zirenak zientziaz hobeto ulertzeko asmoz. Horregatik, gaur egun ere, nahiz eta militantzia lanbide bihurtu, hacker etikak aldarrikatzen dituen balore batzuekin lan egiten saiatzen naiz: egiten dudanakiko interesa, lanarekiko grina, askatasuna, kontzientzia,

horizontaltasuna, berdintasuna, ezagutza irekia, jakin-mina, sormena... Berba potoloak dira eta betetze maila ez dakit zenbatekoa dudan, baina ahalegin kontzienteak egiten ditut hobetzen joateko.

Elkarlana, "erantzukizunaren artikulazioa da" (Arruti, Muniozguren, 1993). Tumatxa! Gure komunitatearen geroa komunitate hori osatzen dugunon esku dago, beste berba batzuekin esanda. Elkar ulertzera kondenatuta gaude. Haren berbeekin jarraitzeko, "hizkuntza komunitateak euskara normalizatzeko duen erantzukizuna artikulatu behar du eta, horretarako, euskaltzaleek hizkuntza normalizaziorako periferia dena albo batera utzi eta mamia hartu behar dute euskararen aldeko jardunaren ardatz" (Arruti, Muniozguren, 1993).

Edozein hizkuntzak duen bermerik handiena txertatuta dagoen komunitatearen babeseta eta atxikimendua da. Dena den, elkarlanean jarduteko ez da derrigorrezkoa gai orotan bat etortzea. Ezta? Izan ere, gurean urte luzez euskalgintza alderdikeriak baldintzatu zuen. Ez ginen gai izan (edo ziren, ni oso gaztea bainintzen) euskararen dinamika ez alderdikoia martxan jartzeko.

Harira itzuliz, ni soziolinguistikara jaio nintzenean euskalgintza ez zen jaio berria. Baina ni bai. Derioko hainbat lagunekin batera, Tximintx euskara elkarte sortu genuen eta alor honetan genuen ezagutza faltak soziolinguistikaren besoetara eraman ninduen (gintuen). Eta afizioa ofizio bihurtu zen.

Euskara elkarteak ... eta zer da euskara elkarte bat? Izenak dioen bezala, elkarteak da, bazkideez osatutako elkarteak. Normalean udalerrira du oinarri (eskualde mailako elkarte batzuk dauden arren). Udalerrira herritar gehienon egunerokoaren espazio asko biltzen ditu: familia, lagunartea, irakaskuntza, merkataritza, ... Gainera, pentsaera ezberdineko euskaltzaleak batzen ditu elkarteak. Eta bere jarduna funtzioak eskuratzean oinarritu du: eskola orduz kanpoko jarduerak, komunikabideak, kultur ekintzak, sentsibilizazio-jarduerak, harreman-sareak, hitzarmengintza eta abar.

Derion hamar urte jardun dugu beste batzuek lehendik jorratutako bide beretik. Haien esperientziatik edan dugu (zer egin behar ez den batez ere ikasi dugu), baina gure bide propioa eginez. Guk pentsatu, guk egin, guk hanka sartu, guk asmatu, guk eztabaidatu, guk jardun. Derioko errealitatera egokituz, genituen eta ditugun baliabideetara moldatuz.

Izan ere, guk euskaldun modura genuen hizkuntza esperientzia digeritu, arrazionalizatu, barneratu genuen. Eta, gero, esperientzia hori aldatzeko, kolektiboki autoantolatu. Hizkuntza komunitatearen nukleo sinbolikoa egituratzea helburu. Horretarako, alor batzuetan geneuzkan (eta ditugun) ezberdintasunak alboratu eta dinamika ez alderdikoia aurrera eraman dugu. Community fostering plangintzari oratu diogu hasieratik: funtzioak eskuratu, gertukotik abiatu, erabilera ardatz, ...

Paperean ondo geratzen den arren, nukleo sinbolikoaren egituratzean aurrerapausoak egin arren, ezin da esan helburua goitik behera bete dugun. Oraindik bide luzea geratzen da egiteko,

baina orain arteko bidaia merezi izan du, ondo merezi ere. Pertsonalki ez ezik, herri dinamika pizteari begira ere ekarpen garrantzitsuak egin ditu Tximintxek hamar urteotan.

Baina hasiera-hasieratik konturatu ginen ez ginela bakarrak. Beste herri askotan ere bazeudela gurearen moduko elkarteak. Eta elkarte horiek guztiak Topagunea izeneko federazio batean biltzen zirela. Ez ginen asko fidatzen: nazio mailako egiturei askok mesfidati begiratzen genien. Baina behetik gora antolatzen den erakunde batekin egin genuen topo: elkarteetako beharri zehatzak eman gura zuten erakundeak, eta ez nazio mailako gidaritzak eraman nahi zuena. Herrietako elkarteek geneuzkan beharrik identifikatu eta horiek betetzeko eginahalean jardute(n) baitu Topaguneak.

Baina itzul gaitzen herrietako euskara elkarteetara. Nire ustez, elkarte hauek parte hartzearen (edo inplikazioaren) alorrean egin duten ekarpen nagusiari buruz berba egiteko ordua heldu da: hitzarmengintzari buruz berba egiteko ordua, hain zuzen ere.

Hitzarmengintza metodo bat da. Entitateak euskalduntzeko erabili den metodo nagusia da. Konpromisoan oinarritutako metodologia da, bakoitza bere burua autoinplikatzean datza. Hitzarmena bi erakunderen arteko akordioa da eta, akordio horren bitartez, erakunde batek euskararekiko konpromiso zehatzak hartzen ditu eta beste erakundeak konpromiso hori gauzatzeko laguntza eskaintzen dio. Helburua da euskal mikrokomunitate normalizatuak eraikitzea. Baina lan sistematikoa eta jarraitua eskatzen du, planifikazioa eskatzen du.

Lehen hitzarmenak 80. hamarkadaren amaieran izan ziren. Baina lehen esfortzu serioak 90. hamarkadaren hasieran izan ziren Arrasate aldean. Eta ordutik Euskal Herriko herri askotan egin dira, erakundeek bultzatuta, euskara elkarteek bultzatuta, biek bultzatuta edo bestelako eredu baten bidez.

Hasiera batean hitzarmengintza plangintzek berdin ekiten zieten merkataritza establezimendu txikiei zein elkartei. Urteen poderioz, plangintzak garatzen joan dira eta merkataritza eta elkarte gintza arloak bereiziz joan dira. Bereizi dira batez ere merkataritza plangintzek izan duten garapenagatik, ez horrenbeste elkarteak euskalduntzeko plangintzek izan duten garapenagatik.

Eta zergatik hitzarmena? Hizkuntza legeriak sektore hauetan ia ez du eraginik. Eta, gainera, hizkuntza plangintzako oso erabaki gutxi egikaritu daitezke dekretu bidez. Edo hori dio Robert L. Cooper-ek behintzat. Eta, gainera, gogoratu behar dugu pertsonak direla hizkuntza portaera berriak hartu edo arbuiatzen dutenak. Edo hori dio Robert L. Cooper-ek behintzat.

## **Udaletako plan parte-hartzaileak**

Gaiaz beste egingo dugu. Eta beste praktika-teoriko batera pasa. Udaletako plan parte-hartzaileetara, hain zuzen ere.

Iñaki Arrutiren berbekin ere ekingo diogu atal berri honi. "Euskara zerbitzuetako teknikariak izan dira garbien ikusi dutenak udaletatik bakarrik ezin dela normalizazio-prozesua gizarteratu eta horretarako herri-ekimena behar dela" (Arruti, 1995). Eta gaineratuko nuke nik: herri-ekimena eta erakundeak norabide berean jarriz gero, emaitzak biderkatzen dira.

Lehen, arazo baten aurrean, adituek diagnostikoa eta irtenbide teknikoak eskaintzen zituzten, eta prozesu horretan ez zeukaten zeresan handirik arazo hori "pairatzen" zutenek (edo aprobetxatzen zirenek). Gaur egun ere, horrelako asko antzematen dira bazterrotan, barruntatzen dira han eta hemen. Baina ahoz gora behintzat inor gutxik esaten du kontrakoa.

Mungian egindako ekimen baten berri eman nahi dizuet. Horrelako beste asko egin dira Euskal Herrian, Durangon, Gasteizen, Markinan, Otxandion, Arabako Foru Aldundian, eta abarretan. Horiekin alderatuta, Mungiako honek ez dauka ezer berezirik. Baina, tira, beste horietan nik ez nuen hartu parte, eta Mungiakoan bai. Horregatik, Mungiakoa aletuko dut.

Mungia Bizkaiko herri bat da, 16.000 biztanle inguru ditu. Euskaldunak biztanleen %58 dira, %26 dira gaztelaniadunak eta %16 ia euskaldunak. Euskara zerbitzua du orain dela hainbat urtetik eta bertan bi langile daude. Udalerrian euskararen normalizaziorako lehen plan estrategikoa 2003an jarri zen martxan eta bigarren plan estrategikoa 2007an. 2011n berriro behar zuten eta Emun kontratatu zuten horretarako.

Herritarren iritzia jaso nahi zuten hirugarren plangintzaldiari ekin aurretik. Guk bost praktika komunitate jarri genituen martxan eta sormen prozesuen bidez herritarren ekarpenak batu genituen. Baina goazen apurka-apurka.

Bost praktika-komunitate eraiki genituen. Eta zer da praktika-komunitate bat? Praktika komunitateak interes komun bat duten pertsona taldeak dira, ezagutza eta ikaskuntzak partekatzeke sortuak, beti ere esperientzia praktikotik eta elkarreraginetik abiatuta. Galdera honi erantzun nahi izan zioten hango komunitateek: Nola aprobetxatu daiteke euskararen normalizazioan jendearen esperientzia denak elkartu eta ezagutza berria sortzeko?

Praktika-komunitate hauen bidez lortu nahi zen, alde batetik, alor zehatz baten gaineko diagnostikoa egitea. Eta, beste alde batetik, alor horretan hurrengo urteetan lortu beharko liriatekeen helburuak eta horiek lortzeko balizko ekintzak marraztea. Hori guztia, sormen teknikak erabilita.

Hauek izan ziren sortu ziren praktika-komunitateak: irakaskuntza (eskolak, ikastolak, guraso elkarteak, euskaltegiak), lan mundua eta merkataritza, aisia, kirola eta kulturagintza (+komunikabideak).

Komunitate hauetako bileretan arloaren diagnostikoa egin zen. Alde batetik, arloan zeuden hutsuneak eta indarguneak identifikatu ziren. Eta, beste alde batetik, udalak arlo hauetan egindakoa ere baloratu egiten zen.

Horren ostean, hurrengo urteetarako helburu nagusi biak zehaztu egin ziren. Sormen teknikak erabilia, hurrengo plangintzaldiko arlokako bi helburu nagusi marraztu zituzten parte hartzaileek.

Ondoren, helburu bakoitzeko estrategia nagusiak formulatu egin ziren, baita ponderatu ere. Komunitateetan ekintza zehatzetara ez zen iritsi. Horietako askotan, hala ere, ekintza zehatzak agerrarazi zituzten partaideek. Horiek guztiak batu egin ziren eta Euskara Zerbitzuaren eskuetan jarri.

Eta nortzuek hartu zuten parte? Guraso elkarteetako kideek, eskoletako zuzendariak, institutuko ikasleek, kirol taldeetako ordezkariak, kultur elkarteetako kideak, kazetariak, alderdi politikoetako ordezkariak, merkatari euskaldunek, erdaldunek, garapen agentzietako teknikariak, euskara plana duten enpresen ordezkariak, euskaltegietako irakasle eta ikasleak, sindikatu etako kideak, aisialdi taldeetako kideak, aisialdi teknikariak, abesbatzek, musikariak, Gaztelekuko erabiltzaileak, kulturgileak, sortzaileak, ...

## **Enpresetako plan parte-hartzaileak**

Militantziatik hasi dut kontakizuna. Gero lan zehatz batekin jarraituko dut eta amaitu nahiko nuke egunero-egunero lanean egiten dudanarekin: enpresetako euskara planekin, hain zuzen ere. Euskara teknikari (aholkulari) aritzen naiz hainbat enpresatan, Emunekin lanean.

Enpresetako euskara planak euskararen presentzia eta erabilera handitzen laguntzeko egiten diren planak dira, enpresa bakoitzaren neurriara egindakoak. Helburu nagusia erabilera areagotu eta erakundearen kulturaren edo sistematikan euskararen kudeaketa integratzea da.

Euskara planetan guk Txepetxek behinola zehaztu zituen hiru edalontziak erabiltzen ditugu: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Eta horien arabera, ekintzak, adierazleak eta beste zehazten ditugu. Enpresen errealitatera egokituz, zeharkako laugarren edalontzia ere erabiltzen dugu: erakundetzea.

Lehen plan pilotuak ezarri ziren 1990. urte inguruan. Hasierako metodologia “komunikazio zirkuluena” izan zen. Enpresaren funtzionamendua hobetzeko langileak bilerak egiten dituzte hobekuntzak proposatu eta aztertzeko. Bilera horietan maila guztietako langileak parte hartzen dute, eta horixe da, hain zuzen ere, sistema hauen berezitasun handiena: enpresa eta eguneroko lana hobetzea ez da ingeniari edo espezialisten eginkizun itxia, langile guztiena baizik.

Beraz, hasiera-hasieratik plan hauek parte hartzaileak izan ziren. Gerora dezente garatu da metodologia, baina, hala ere, langileen parte hartzea aintzat hartzen da gaur ere. Aintzat hartu ez ezik, ezinbestekoa ere bada planaren arrakastarako.



Plana egiten diseinutik hasi beharra dago. Diseinuan, alde batetik, enpresan euskarak duen egoera aztertzen da eta, beste alde batetik, hurrengo urteetarako (hiru, lau, bost) helburuak eta estrategia nagusiak ezartzen dira. Diseinuak arrakasta izan dezan (sitsek jandako papera bihurtu ez dadin, hain zuzen ere), langileek parte hartu behar dute. Diseinuan bertan langileen parte hartzerako foroak egituratzen dira, nahiz eta egia esan parte hartzea handiagoa izan planaren inplementazioan. Foro nagusia diseinuan Euskara Batzordea da. Batzorde horretan hartu behar dute parte langileen ordezkariak eta zuzendaritzaren ordezkariak, gutxienez. Gero enpresaren arabera, egoitza eta atal ezberdinekoak, euskara maila ezberdina dutenak, eta abar.

Inplementazioan parte hartzea areagotu egiten da. Guk pertsonekin egiten dugu lan, gertuko tratua eskaintzen saiatzen gara. Horrez gain, parte hartze bideak ireki ditugu enpresatan. Berrikuntzak sartu ditugu gurekin batera hainbat enpresatan.

Inplementazioan ere Euskara Batzordeak du zentraltasuna, parte hartzeari dagokionez. Baina bai implementazioan zein diseinuan garrantzi berezia du koordinatzaileak. Enpresako gure interlokutorea izango da koordinatzailea, baita Euskara Plana lideratuko duen pertsona.

Parte hartzean eta inplikazioan beste faktore batek ere garrantzia berezia du: teknikariaren presentzia. Guk, Emunekook, bezeroaren egoitzan pasatzen ditugu gure lan-ordu gehienak. Horrek itzelezko gertutasuna dakar bezeroaren etxean dauden langileekin, gertutasuna eta prestutasuna. Euren inplikazioa eskatzeko (eta lortzeko) ezinbestekoa da eurekin komunikazio zuzena eta maiztua izatea.

Lehen aipatu ditudan lau ardatzetatik, motibazioaren ardatza izan ohi da langileekin zuzenean egoteko eta eurek inplikatzeko aukera gehien ematen duena. Zeharkako zein zuzeneko motibazioaren bidez. Zeharkako motibazioan, batez ere, sentiberatzea bilatzen da. Zuzeneko motibazioan, berriz, hausnartzea eta portaera aldatzeko pausoak ematea.

## Ondorioak

Azkar-azkar eta brotxa lodiz aletu ditut nire laneko kontu batzuk, nire militantziako kontu batzuk, parte hartzean eta inplikazioan zentratuz. Ondorio batzuk ateratzerik bai? Ea ba ...twitter erara:

- Edozein hizkuntzaren normalizazioak parte hartzea eta inplikazioa eskatzen du, ezinbestez.
- Komunitatea da hizkuntzaren biziraupenerako tresna nagusia, komunitate barik, etorkizunik ez.
- Aldaketak gauzatzeko oinarritzko elementua pertsonak dira.
- Parte hartzea erantzukizuna artikulatzea da, inplikazioa erantzukizuna artikulatzea da.

- Lehen arazo bat zegoenean, adituek konpondu egiten zuten (edo ez), arazoa sufritzen zutenei kasurik egin gabe.
- Parte hartzea bultzatu nahi badugu, hezitzaile jardun behar dugu, dibulgatibo, adituen hizkeratik urrunduz.
- Herri ekimena eta administrazioen ekimena beharrezkoa da, biek norabide berdinerantz jo behar dute.
- Parte hartu, dibulgatu, formatu, inplikatu, erabaki, ... Aditz horien esangurak ezberdindu behar ditugu.

## **Bibliografia**

Allartean bloga Ideia erradikalak, 2013, <http://allartean.blogspot.com.es/2013/04/ideia-erradikalak.html>

Allartean bloga Normalizazioa eta eraldaketa, 2012, <http://allartean.blogspot.com.es/2012/05/normalizazioa-eta-eraldaketa.html>

Arruti, Iñaki Euskara elkarteak: jatorria eta norabidea, 1995, Bat 16 aldizkaria

Arruti, Iñaki, Muniozguren, Fernando Euskararen normalizaziorako entitateen arteko elkarlana, 1993, Jazten 9 aldizkaria

Cooper, Robert L. *La planificación lingüística y el cambio social*, 2007, Cambridge

Larrea, Imanol Enpresetako eta herrietako euskara planen diseinua metodologia parte hartzailearen ikuspegitik, 2002, Hiznet sakontze egitasmoa

Mackey, William F. Hizkuntza jokaera-aldaketa legeen bidez, 1993, Bat 9 aldizkaria

Martinez de Luna, Iñaki Euskarak duen framing berri baten premia asetzeko proposamena, 2013, Bat 86 aldizkaria

Miner, Imanol Euskaldunok nortasun krisi bat dugu, eta autoestimua ezin beherago dugu, Berria egunkaria 2010-03-20

Topagunea *Hitzarmengintza: Entitateak euskalduntzeko metodologia*. Eskuliburua, 2003

Vadillo, Alex Udalerrietan euskara biziberritzeko planak eta parte hartzea, 2008, Hiznet sakontze egitasmoa

Zalbide, Mikel Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?, 2003,  
[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1056974834](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1056974834)